ABENDUA 1.980 | SAGARDOTEGIA | IGNAZIA MENDIOLA OIARZABAL
85 urteko EMAKUMEA

1 IZENA : Taula.

2 LEKUA : Taula baserria.

3 EZAGUTU ZIREN NAGUSIAK :

Juan Bautista Bengoetxea ( )
Joxe Zapirain ( ) Borda-zar baserritik etorria
Migel Zapirain ( )

4 NOIZTIKAN DAGOEN FUNTZIONATZEN:

Funtzionatzen hasi zen garaia ez da ezagutzen.
Sagardotegia oso zaharra. Zaharren. zaharrenetakoa.

5 FUNTZIONATZEN UTZITAKO URTEA

Gutxi gora bera 1.962.

6 TOLAREA : Tolarea propioa zuen eta noizean behin, Kanpoako ere jotzen zuen sagarra.

7 ZENBAT SAGARDO EGITEN ZEN:

11.000 litro 1.920. urtean, dana etxeko sagarrarekin.
22.000 litro 1.962 urtean, dana etxeko sagarrarekin

8 HERRIARI IDEKIA: Beti egon da idekia herriari. Beinere ez du egin sagardoa etxerako bakarrik.

Sagardotegia idekitzen zuten urtean hasieratik, sagardoak bukatu arte. Goizean eguzkia atera ordu jendea hasten zen joaten eta gau hamarrak arte ordu zan, berandu arte egoten zen jendea. Gau-pasa egiten zuen jendea ere ba zen. Ez zen ohiturik sagardo batetik bestera joateko egun berean.

(7) Kanpoko sagarrarekin ere egin izan dute sagardoa.

Etxean bertan 100 Karga baino gehiago bildu izan dute.

Baita ere mahastu izandu diote udarea, etxean mahuko udarea izan da.

Sagardo gutxi-a etxean saltzen zen.

9: ZE JATEN ZEN SAGARDOTEGIAN: Sardin - zaharra.
Bakallua saltza - berdean.

10: ZE JOKO MOTA ERABILTZEN ZIREN:

ToKa
Boloak (Bola-tokia zegon).
Brille }
Brillar } ?

11: ZENBAT ORDAINTZEN ZEN

Batzuek ez zuen ezer ordaintzen.
Beste batzuek bost-kuarto ~~ezer ... edaten~~ txarroka bakoitzarengatik

BOST-KUARTO = 3 xo.

12: NOLA EDATEN ZEN: Txarroka eta basotan. | lehen embotellatzen zuenean, botilletan saltzen zuten.
Txarrak lurrezkoak ziren eta
basoak berriz kristalezkoak.

13: NOLA KARRAITZEN ZUTEN SAGARDOA ETXE BATETIK BESTERA.
Gurdian. Bukoia ~~eta~~ eta barrika luzea. Karretoan.

14: NOLA BILTZEN ZEN SAGARRA
Lehen eskuarekin eta azken aldea kiskiñarekin.

15: NOLA KARRAITZEN ZEN SAGARRA
Gurdiarekin. ~~Eziarekin basterrak itxita~~ Eziak bazterretatik, aurrean eta atzean jarrita. Hortela sagarra botatzen zen gurdira bete arte.

EZIAREN kroquis bat eta explikazio bat

16: ZE SAGARRA ZEN ONENA SAGARDOA EGITEKO
Sagar gorria – txalaka sagarra – Sagar urdina
Piku sagarra – Pattulo sagarra – Moxolua.

17: ZE NEURRIAK DAUDEN SAGARDOTEGIETAN
Karga = 6 zako sagar (Neurri zakarra)
Hectolitroa ⟶ croquis.

18: NONDIK JENDEA ETORTZEN ZEN:
Astigarragakoa asko
Oiartzun, Hernani, Donosti ta bere inguruetatik.
Jendea etortzen zen Zaldi-cotxetan, batzuek bere txoferrarekin.
Bide nagusian basterttan hilera luze batean. ~~Tranvi~~ Tranvian ere jende asko etortzen zen.

19: JENDEA NOLA ~~ZEN~~ EGOTEN ZEN ZUTIK ALA ESERITA.
Jendea bi eratara egoten zen.

~~9. JATENA Baldintzak bere~~ Jatena sagardotegian preparatzen zitzaian ~~eta~~

20: ZE EGUNETAN IBILTZEN ZEN JENDE GEHIENA
Aste santuetan eta sagardoa edateko afanik haundiena zuen eguna Ostiral Santua.

21: KANPOKO JENDERIK EKARTEN AL ZEN LANERAKO

Mantenduean trukean jendea hartzen zuten, sagarra bilbeko, tolareko lanetako, enbotellatzeko eta abar.

22: TAULAKO HIZTEGIA

TURBIOA: Sagardoa zikinduen denian edo zikin iluna dauka nean.

FUERTXAKOA: Barrikotea

ESIA (ESIYA): Gurdiari jartzen zaizkion Kartolak bazterretan, aurrean eta atzean, dana egurrezkoa (gaztainazkoa) josita saskia bezala Kurutzatuta edo josita Sagarra, artoa, ondarra Karraiatzeko

TXINGARRA: Sagardoa basora ateratzekoan botatzen zuen tximparta edo

KASKABEL: Moskortuta (granuilloa) zaudenean Sagardoari deitzen ziotena

23: GERTAKIZUNAK Jendeak izugarriko betekak arrapatzen zuen. Egun batean arto zail batetik artoak atera eta bide nagusiko bazterrean aldatu zuten Lizardiko inguruarte

Beste batean beztako Karroa, beko zoko batera bota-ta utzi zioten.

SAGARDOTEGIAK: Uetez Hiru tokitan Sagardotegiak ba zituen zuen. Errota, Manjoandegi eta Ergobi

ABENDUA 1980 IGNAZIA MENDIOLA OTARZABAL

85 URTEKO EMAKUMEA